

#CARTASDEACOMPAÑAMIENTO

Kaixo lagun,

Ez dugu elkar ezagutzen baina nire gutun hau zurera heldu baldin bada, laguntzat jo nazakezu. Aurreko batean lagun batek boluntarioak eskatu zituen gutunak idazteko. Hamaika pertsona eman genuen izena, izan ere lagun honek badu lidergo polita eta besteak erraz animatzeko gaitasuna badu ere. Une horretan gutun bat gazteleraz eta beste bat euskaraz idaztea erabaki nuen.

Bakoitzak bere hizkuntzan irakurtzea gogokoa baitu.

Lerro hauek idazten ditudan heinean zera pentsatzen dut, zurera helduz gero, gure bizitzako bideak nolabait harremanetan jarri behar zirela esan nahi du. Beraz hemen nauzu. Aitziber dut izena, irundarra naiz. Ikastetxe batean egiten dut lan eta nahiz eta euskara gure eguneroko hizkuntza izan ez da nire ama hizkuntza beraz akatsak egotekotan barkaidazu.

Zer moduz zaude? Gaurko eguna gris xamar esnatu da. Batzuetan egun grisek malenkonia sortzen didate, baina gaur ez dut halakorik sentitu nahi eta egoera deserosoa baldin bada ere ni hori animatzeko prest nago. Zer nirekin lerro hauen bidez animatzeko prest?

Nire etxean atzealdera ematen duen balkoi bat dut. Atzeko alde horretan zuhaitz mordoa daude eta hantxe Parisen antzera mahai ttiki bat jarri dut. Parisen antzera diñot balkoia estu estua delako eta mahaiaren aldeetan aurrera begira eserita izan behar zara Pariseko terrazetan bezala. Handik txoritxoek udaberri honetaz zenbat disfrutatzen ari diren konturatzen ari naiz, beraien habiak eraikitzen ari dira eta txioka txioka dabilzate ligatu nahian. Etxetik, soberan ditugun ogi puxketak botatzen dizkiegu; teleberria esan baitute hirietako txoritxoek jan eza izan dezaketa gu etxeetan egonda. Natura ikusita eta naturarekin harremanetan egonda, bizitzena ari garen egoera bitxi hau errezagoa egiten ari zait.

Zer egiten duzu zuk burua martxan izateko eta egun hauek ondo bizitzeko? Ni etxean gimnasia egiten ari naiz, Jane Fonda edo Eva Nasarreren antzera nabil baina kilo gehiagorekin. Lagunei brometan esaten diet ni Rubens

#CARTASDEACOMPÑAMIENTO

edo Boteroren Jane Fonda naizela hor etxeko salan musikarekin gimnasia egiten. Hala ere, ondo sentitzen naiz, gutxienez gorputza mugimenduan jartzen dut.

Honetaz gain irakurtzen saiatzen ari naiz. Nire egunerokotasunean lana dela eta ezin dut nahi bezain beste irakurri eta pena handia ematen dit, irakurtzen dudanean nire buruak alde egiten du, liburuetako pertsonaiekin batera nabil liburuko xehetasunetan erabat murgilduta. Eleberri beltza maite dut, ikerketak eta gertakariak nola aztertzen diren asko gustatzen zait, burmuina martxan jartzen dit. Zuk irakurtzea gustukoa duzu? Zer gustatzen zaizu irakurtzea? Ze liburu gomendatuko zenidake?

Gaurkoz agurtu egin behar zaitut bazkaria ia prest baitago eta bazkaltzera joan behar naiz. Besarkada handi eta goxo bat.

Aitziber Gómez